

1 Urtsuko errota

1605ean aipatzen da lehen aldiz, Abaltzisketako Juan Armendariz arotzak bertan egindako hargintza eta zurgintza lanen harira. Ehun urte beranduago, 1705ean, Ordiziako Isasagatarren izenean zegoen. Ez da jakiterik izan noiz arte egon zen martxan. Urtsubi errekatik hartzen zuen ura.

2 Zubieta errota (Zubiberrieta, Huarkazabaleta, Markazabaleta)

1790eko hamarka hasieran eraiki zuen Frantzisko Jauregik. XX. mendean errota eta zentral elektrikoa moduan funtzionatu zuen. Juan Manuel Mendizabal aurrena eta Juan Bautista semea ondoren, izan ziren azken errotariak: 1961 arte errota publiko gisa, eta beste zenbait urtetan modu pribatuan. Bi harri pareekin lan egiten zuen, Amundarain errekatik 400 l/s ur-emariarekin. Gaur egun Irastorza Sukia sendia bizi da bertan, eta argi-indarra martxan dute.

3 Olako errota, goikoa

Antzina burdinola izandakoa. 1621ean Muskildi baserriko Joan Maiz zen errotaria. Azken urteetan bi harri pareekin lan egin bazuen ere, garai batean hiru izan zituen. Amundarain errekatik hartzen zuen ura, Unanubietako presa baliatuz aurrena, eta Brauliorena ondoren.

4 Olako-errota, behekoa

Argi-indarra sortzeko eraiki zuten aurrekoaren behealdean, handik ateratako urak baliatuz. 1927an Ordiziaraino zihoan tentsio altuko linea bat ezarri zen bertan. 1933an Legorretako paper-fabrikako nagusia zen Juan Joxe Etxezarretaren eskuetara pasa zen. Harri pare bakarrarekin lan egiten zuen. Joxe Erauskin izan zen Olako errotako azken errotaria (1965).

5 Juanmanuelene errota (Santa Fe, Murua-errota)

1925ean erosi zuen Juan Manuel Mendizabalek Zubimusu etxea. 1931n irin-errota publiko gisa alta eman zitzaion, eta ordurako elektrifikatuta zegoen. Geroago, okindegia eta janari denda ere gehitu zizkion. 1965ean Antonio Muruak erosi zuen. Zubieta errotako argindarra baliatzen zuen, handik ekarritako bi harri pareak motor baten bidez mugitzeko.

6 Beheko errota (Beko-zelai errota)

Aurrez altzairuen fabrika izana. 1905ean Amerikatik etorritako Erauskinek errota eta zentral elektrikoa jarri, eta 1910eko hamarkadan herriko 80 familien argia ekoizten zuen, Kanpaingo errotarekin batera. Geroago Zubieta errota ere gehitu zitzaion. 40ko hamarkadan hobekuntzak egin zituzten, hiru harri pareekin lan egitera pasaz. Okindegia ere bazen bertan. Felipe Erauskin izan zen azken errotaria. Amundarain errekatik uraz baliatzen zen.

7 Errotatxiki

1900 urterako martxan zegoen. Hamar urte ingururen buruan, ordea, erre egin zen. Harrez geroztik abandonatuta dago. Amundarain errekatik uraz baliatzen zen, eta hari itsatsita zegoen, Elbarrrena auzoko Aldaburu baserriaren pare inguruan.

8 Errotaberri

Lehen aipamena 1890ekoa da, eta une hartan Francisco Arruabarrena zen errotaria. 1902an martxan jarraitzen zuela badakigu, baina ez dago informazio gehiago. Errota Munduate fabrika zenaren lurretan kokatzen zen. Gerora "Makinetxe" egon zen bertan, eta gaur egun Orkli kooperatiba. Zaldibiako lurren hasieran, Aizpuruetxeberri baserria baino goraxeago zegoen presako uraz baliatzen zen.

9 Kanpaingo errota

Kanpaingo monastegia 1134an aipatzen da lehen aldiz. Errota bezala lehen aipamena, ordea, 1620. urtekoa da, eta Katalina Jauregi zen errotaria. Azken ehun urteetan, laurogeiko hamarkadaren hasierara arte, Garmendiarrek ustiatu zuten. "Juanixio" Garmendiak jarri zuen Zaldibiako lehen argindar sorgailua, uraren indarra alternadore bati esker elektrizitate bihurtuta. Bi harri pareekin lan egiten zuen, Amundarain errekatik urekin hornituz. Orain gutxi konpondu da auzolanean, herritarrekin eta udalarekin elkarlanean.






ZALDIBIAKO
UDALA

Informazio gehiago:
zaldibia.eus

ZALDIBIA
uraren indarra

HERRIKO ERROTAK



2022an argitaratua